

ZARAUTZ / Aurtengo lehen literatura solasaldia, Aitziber Etxeberriarekin

Hileko azken asteazkenean, hilak 26, aurtengo lehen literatur solasaldia izango da Sanz Eneako aretoan. Oraingo honetan, estraineko aldiz, idazleak zuzenean parte hartuko du saioan, Aitziber Etxeberria zarautzarrak, 'Tango urdina' bere liburuaz hitz egiteko. Saioa euskaraz izango da Ane Mayozen gidaritzapean, arratsaldeko 18:30etik 20:00etara. Liburutegiak dossiera prestatu du solasaldirako eta interesaturik zaudetenok

www.kulturazarautz.org orrialdetik deskargatzeko aukera duzue.

Aurtengo lehen hiru saiotarako liburutegiak aukeratu dituen tituluak emakumeak idatzitakoak dira.